

FITORRASTREANDO: Analizando la calidad del aire de San Sebastián a través del césped

Cristina Enea Fundazioak proiektu berritzaile eta aitzindari bat jarri du abian, Donostiako airearen kalitatea aztertzeko. Etxebizitza partikularretan jarritako gramineoen laginak aztertuta, agente kutsatzaile jakin batzuen presentzia neurtuko da. Ekimenak CSICen (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena) laguntza du.



Donostia / San Sebastián, 2023ko Otsailaren xx - Azken hamarkadetan egindako azterlan ugari agerian utzi dute hirietako trafikoak eragina duela herritarrek arnasten duten airearen kalitatean. Metal astunak, hala nola beruna, zinka edo artsenikoa airean, ugaritu egiten dira ibilgailuen zirkulazioa trinkoagoa den kaleetan, eta arnas gaixotasunak dituzten pertsonen osasunean inplikaturik daudela berresten da, besteak beste.

Hori dela eta, Erkidegoko politiketatik eta estatuetako eta tokiko administrazioetatik, emisioak eta kutsadura murriztuko dituzten garraio-sistema publiko eta pribatuak sustatzea eta ezartzea bultzatzen da, eta, aldi berean, herritarren inplikazioa bilatzen da auzo osasungarriagoak eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoak direnak sortzeko.

Fitoarakatzen proiektua, Iker Aranjuelo Mitxelena doktoreak koordinatua (IdAB-CSIC, Nafarroako Agrobioteknologiako Institutuko ikerlaria) eta Cristina Enea Fundazioak bultzatua, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioiko Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak (FECYT) finantzatzen du. Herritar zientziaren proiektuaren helburua Nafarroako eta Euskal Herriko zenbait eremutako airearen kalitatea aztertzea da, boluntarioen etxeetako balkoietan eta leihoetan jarriko diren gramineo-landareak banatuz. Zentzu horretan, Marisol Garmendia Donostiako Udaleko Ekologia zinegotzi ordezkariak adierazi du "herritarren zientziari buruzko proiektu bat dela, edozein donostiarrek erraz parte har dezakeena, eta, lor daitezkeen datuez gain, ingurumenari buruzko sensibilizazio- eta kontzientziazio-elementu bat izan nahi duena".



Iker Aranjuelo Mitxelenak, proiektuaren koordinatzaile eta Nafarroako Agrobioteknologiako Institutuko CSIC ikertzaileak, ziurtatu du “bere ezaugarriak direla eta, gramineoak eta belarra gramineo mota bat izanik, asko erabiltzen direla airearen ingurumen-kalitatea ikertzeko”. Ekimena, hori bai, datozen asteetan garatuko da Cristina Enean banatuko diren loreontzietan hazitako belarlandareen laginak jarri beharko dituzten pertsonen laguntzarekin. Bi hilabetez, landareak balkoietan egongo dira, eta airean egon daitezkeen substantzia kutsatzaileak atzematen joango dira. Proiektuan parte hartzen duten boluntarioek noizean behin bakarrik ureztatu beharko dituzte.

“Bi hilabete igaro ondoren, laginak jaso eta laborategira bidaliko ditugu, aztertu eta beren zelulategituretan metal astunen presentziari buruzko datuak eman ditzaten”, Iker Aranjuelo Mitxelenak esan duenez. Datu horiek guztiak saio ireki batean aurkeztu eta azalduko dira, eta proiektuan parte hartu duten boluntarioek eta emaitzak ezagutu nahi dituen edonork parte hartu ahal izango dute. Gainera, lortutako datuak Cristina Enea Fundazioaren webgunean ere argitaratuko dira. “Gure kaleetan arnasten dugun airearen kalitatea ezagutarazteko modu erraza da”.

Aranjueloren arabera, ekimenaren helburuak hiru dira: “batetik, ibilgailuen trafikoak gure kaleetako eta hirietako airearen kalitatean duen eraginari buruzko informazioa eskaintzea”; bestetik, “herritarrei airearen karakterizaziorako teknika berrien garapen tekniko-zientifikoan parte hartzeko aukera ematea”; eta, azkenik, herritarrak ahalduz, “alternatibak proposatzeko eta airearen kalitatean eragina duten faktoreei buruzko espirtu kritikoa garatzeko”. Marisol Garmendiak, bere aldetik, alde aurretik eskertu nahi izan du herritarren parte-hartzea, eta iragarri du laginak zaindu eta ikerketa osatzeko Cristina Eneara eramaten dituzten pertsonen naturari buruzko liburu bat jasoko dutela, Joaquín Araujo dibulgatzaile ezagunak idatzia.

Parte hartu ahal izateko, eskabidea idatzi behar da Cristina Enea Fundaziora (cristinaenea@donostia.eus) edo www.cristinaenea.eus webgunean eskuragarri dagoen formularioa bete.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

